



euskalmendizale**federazioa**

Kirol Eskaladako
Txapelketetarako Araudia
Reglamento de Competición
de Escalada Deportiva

***EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAK 2007-02-17AN
EGINDAKO BATZARREAN ONARTUTAKOA ETA 2008-10-
25EKO BATZARREAN ALDATUTAKOA.***

AURKIBIDEA

1.- SARRERA. HELBURUAK	4. or.
2.- ANTOLAMENDUA	4. or.
2.1: EMFko ordezkariak, epaileak eta ekipatzaile ordezkariak	4. or.
2.2: Antolatzaileak	4. or.
3.- TXAPELKETA OFIZIALAK	5. or.
3.1: Kirol Eskaladako Zailtasun modalitateko Euskal Kopa	5. or.
3.2: Kirol Eskaladako Zailtasun modalitateko Euskal Herriko Txapelketa	6. or.
3.3: Blokeko Euskal Kopa	6. or.
3.4: Blokeko Euskal Herriko Txapelketa	7. or.
3.5: EMFren beste edozein txapelketa ofizial	7. or.
4.- BISTAKO ZAILTASUN ESKALADA MODALITATERAKO ARAUDIA	7. or.
4.1: Eskalada murrua	7. or.
4.2: Bistako zailtasun eskalada	7. or.
4.3: Segurtasuna	7. or.
4.4: Lehiaketarako izen ematea	8. or.
4.5: Bilera teknikoak	8. or.
4.6: Hasteko ordena	8. or.
4.7: Izena emateko gunea eta bakartze gunea	8. or.
4.8: Bidea egiteko denbora	9. or.
4.9: Behatzeko denbora	9. or.
4.10: Igarotze gunea eta eskalatzen hasi aurreko prestakuntza	9. or.
4.11: Eskalatzeko prozedura	10. or.
4.12: Eskaladaren amaiera	10. or.
4.13: Bideo ekipoaren erabilera	10. or.
4.14: Murruren mantentze lanak	11. or.
4.15: Gorabehera teknikoak	11. or.
4.16: Sailkapena eta itzuli bakoitzerako kuotak	11. or.
4.17: Lehiakide bat lehiaketatik kanporatzea	12. or.
4.18: Deskalifikazioa eta zigor diziplinarioa	12. or.
5.- BLOKEKO ZAILTASUN ESKALADA MODALITATERAKO ARAUDIA	12. or.
5.1: Blokeko zailtasun eskalada	12. or.
5.2: Eskalada guneak	12. or.
5.3: Segurtasuna	13. or.
5.4: Lehiaketarako izen ematea	13. or.
5.5: Bilera teknikoak	13. or.
5.6: Hasteko ordena	13. or.
5.7: Izena emateko gunea eta bakartze gunea	14. or.
5.8: Igarotze gunea eta eskalatzen hasi aurreko prestakuntza	14. or.
5.9: Eskalatzeko prozedura	14. or.
5.10: Puntuazio sistema	15. or.
5.11: Guneen mantentze lana	15. or.
5.12: Gorabehera teknikoak	15. or.
5.13: Sailkapena eta itzuli bakoitzerako kuotak	16. or.
5.14: Lehiakide bat lehiaketatik kanporatzea	17. or.
5.15: Deskalifikazioa eta zigor diziplinarioa	17. or.

KIROL ESKALADAKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA

6.- DOPINA	17. or.
7.- DIZIPLINA ARAUBIDEA ETA KIROL JOKABIDEA	17. or.
7.1: Sarrera	17. or.
7.2: Lehiakideak	17. or.
7.3: Ekipo ofiziala	18. or.
8.- ERREKLAMAZIOAK ETA APELAZIO SISTEMAK	18. or.
8.1: Orotarikoak	18. or.
8.2: Apelaziorako epaimahaia	18. or.
8.3: Erabaki ofizial baten kontrako erreklamazioak lehiaketan	19.or.
8.4: Erabaki ofizial baten kontrako erreklamazioak lehiaketako itzuli baten ondoren	19. or.
8.5: EMFren kirol diziplina eta lehiaketa batzordeari zuzendutako erreklamazioak	19. or.
8.6: Erreklamazio tasak	19. or.
9.- XEDAPEN GEHIGARRIAK	19. or.

KIROL ESKALADAKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA

1.- SARRERA. HELBURUAK

EMFk antolatzen dituen kirol eskaladako lehiaketek edo honek babestuta egiten direnek helburu hauek dituzte:

- Euskal Herriko eskalatzailerik onenak biltzea lehiaketan.
- Euskal Herriko gazteen artean kirol eskalada sustatzea.
- Eskalatzailerik onenak maila hobetzea eta Euskal Herriko lehiaketazko kirol eskaladaren bilakaeran laguntzea.
- Estatuko lehiaketetan edo nazioartekoetan Euskal Herria ordezkari bezala ezagutzeko eskalatzailerik onenen aukeraketarako erreferentziatzat baliagarri izatea.

2.- ANTOLAMENDUA

Euskal Mendizale Federazioko Kirol Eskaladako Batzordea (aurrerantzean EMF) EMFren kirol egituraren txertatuta dago.

EMFk Euskal Herri mailan EMFk antolatzen edo babesten dituen kirol eskaladako lehiaketa guztietan aginte teknikoa du (halaxe zehazten da 3. atalean).

EMFren ardura da Lurralde Federazioek, Mendi Elkarteek, erakunde pribatuak eta instituzioek Euskal Herriaren barnean kirol eskaladako lehiaketak antolatzeko egiten dizkieten eskariak jasotzea eta erantzuna ematea.

Kirol eskaladako lehiaketa guztiak, ofizialak edo babespekoak, araudi hau zorrotz betez antolatuko dira.

2.1.- EMF-KO ORDEZKARIAK, EPAILEAK ETA EKIPATZAILE ORDEZKARIAK

Kirol eskaladako edozein lehiaketa kontrolatu ahal izateko, EMFk honako pertsona hauek izendatuko ditu:

- A.- Epaimahaiko Lehendakaria.
- B.- Bideko Epailleak.
- C.- Ekipatzaile Ordezkaria.
- D.- EMFren Ordezkaria.

a.- Epaimahaiko Lehendakariak du agintaritza gorena lehiaketak dirauen bitartean. Epaimahaiko Lehendakaria da lehiaketak zuzentzeko izendatutako Bideko Epaileren buru, eta haren ardurapean egongo dira; Bideko Epailleek egindako emaitzen orriak sinatu behar ditu, eta lehiaketari buruzko gorabeherak zehatz-mehatz azaltzen dituen txosten bat aurkeztu behar dio EMFri. Epaimahaiko Lehendakariak kirol eskaladako Goi Mailako Epaille titulazio ofiziala izan behar du, eta EMFren epaile eta teknikarien estamentuko kide izan behar du.

b.- Bideko Epailleek kirol eskaladako Goi Mailako Epaileri dagokion titulazio ofiziala izan behar dute, eta EMFko epaile eta teknikarien estamentuko kide izan behar dute. Epaille hauen funtzioa kirol eskaladako lehiaketak dirauen bitartean araudi hau betearaztea izango da, Epaimahaiko Lehendakariaren ardurapean.

c.- Ekipatzaile Ordezkariek titulazio ofiziala izan behar du, eta EMFko epaile eta teknikarien estamentuko kide izan behar du. Lehiaketa barneko bide bakoitzaren ezaugarri teknikoak eta segurtasun neurriak egiaztatzeko ardura du bere gain, eta halaber, Epaimahaiko Lehendakariari aholku emateaz ere arduratuko da, lehiaketa eremuko alderdi tekniko guztiei dagokienez. Ekipatzaile Ordezkariek EMFri lehiaketari buruzko txostena aurkeztu behar dio. Ekipatzaile Ordezkariek betebeharrak hauek ditu:

- Lehiaketako itzuli bakoitzerako bideak izendatzea eta bideek dagozkien mailako estandarrak betetzen dituztela eta araudi honetako estandar teknikoekin bat datozela ziurtatzea.
- Epaileren arabera bideak konpontzen eta garbitzen direnean, konponketa eta garbiketa lanak gainbegiratzea.
- Bidearen krokisen gainean epaileei edota neurtzeaz arduratzen direnei aholku ematea.
- Beroketa guneko mantentze lanak gainbegiratzea eta kontrolatzea.
- Epaileri bideo kameraren kokapenari buruz aholku ematea.
- Epaileri aseguratzaileen gaitasunari buruzko informazioa ematea.
- Epaileri bide bakoitzerako beharrezkoa izango den gehienezko denborari buruz aholku ematea.

d.- EMFren Ordezkaria EMFren ordezkari ofiziala da, lehiaketako bilera eta fase guztietan.

2.2.- ANTOLATZAILEAK

Antolamenduaz arduratzen den erakundeak honako funtzio hauek bete behar ditu (betiere honen eta EMFren artean berariaz erabakitako aldaketarik izan ez bada):

- Lehiaketa aurretiko antolakuntza: administrazioa, hornikuntza gainbegiratzea, eskalada murruren eraikuntza eta honekin lotutako hornikuntza, lehiaketa gunearen hornikuntza.
- Lehiaketarako pertsona akreditatu guztiei harrera egitea eta erregistratzea (lehiakideak, EMFko teknikariak, komunikabideak, etab.).

KIROL ESKALADAKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA

- Bakartze gunerako sarbidearen erregistroaz arduratzea eta sarbide hori kontrolatzea, epaileei emandako jarraibideak onartuz.
- Lehiaketako barruti osoan segurtasunaz arduratzea.
- Bakartze gunea utzita lehenengo igarobidera eta, ondoren, lehiaketa gunera doazen lehiakideekin joatea eta beroriei laguntzea.
- Ekipatzaile Ordezkararen aginduak betez murrua hornitzea eta mantentze lanez arduratzea.
- Epaileei filmatzeko eta bideoak erreproduzitzeko ekipo bat eskaintzea.
- Komunikabideentzako zerbitzuak eskaintzea.
- Zerbitzu medikoak eta hitzartutako beste hornikuntza batzuk eskaintzea.
- Irekiera eta itxiera ekitaldiak antolatzea.
- Epaileei behar duten materiala eskaintzea.

3.- TXAPELKETA OFIZIALAK

EMF da ondoren adierazten diren kirol eskaladako lehiaketa mota hauetarako baimena eman dezakeen bakarra:

- 3.1: Kirol Eskaladako Zailtasun modalitateko Euskal Kopa
- 3.2: Kirol Eskaladako Zailtasun modalitateko Euskal Herriko Txapelketa.
- 3.3: Blokeko Euskal Kopa.
- 3.4: Blokeko Euskal Herriko Txapelketa.
- 3.5: EMFren beste edozein txapelketa ofizial.

Honako txapelketa modalitateak hartuko dira kontuan:

- Bistako zailtasun eskalada
- Blokeko zailtasun eskalada
- Entseatutako zailtasun eskalada

Ondoren modalitate bakoitzeko araudi berezia zehaztu da.

3.1.- KIROL ESKALADAKO ZAILTASUN MODALITATEKO EUSKAL KOPA

3.1.1.- Antolatzaileekin egindako hitzarmenean EMFk ezarritako baldintzen arabera, hauek Euskal Kopa antolatuko dute, araudi hau eta indarrean dauden arau teknikoak betez.

3.1.2.- Proben kopurua gutxienez hirukoa izango da, eta gehienez seikoa. Ahal izanez gero, egun bakar batean ospatuko dira; dena den, proba horiek egiteko epeak ezin izango ditu gainditu bi egun.

3.1.3.- Probak bi fasetan garatuko dira: lehengoa sailkapen proba izango da, eta bigarrena, berriz, finala. Bi faseak kategoria bakoitzean.

3.1.4.- Lehiaketa bistako zailtasun eskalada modalitatean garatuko da, eta modalitate horri dagokion araudia bete behar du zehatz-mehatz (Ikusi 4. atala).

3.1.5.- Parte hartzaileek urte horretan beren herrialdeetan emandako kirol lizentzia izan behar dute, eta erantzukizun zibileko aseguru bat eta istripu aseguru bat kontratatuta dutela egiaztatu beharko dute, biak ere beharrezkoa duten estaldurarekin.

3.1.6.- Proba guztiak banaka jokatu dira. 18 urte bete gabe dituzten parte hartzaileek gurasoen baimena aurkeztu behar dute (antolatzaileek izena emateko orrian gurasoen baimenaren eredu bat txertatuko dute).

3.1.7.- 18 urtetik beherako parte hartzaile guztiek gurasoen baimena erakutsi beharko dute lehiaketan parte hartu ahal izateko.

3.1.8.- Parte hartzaileen artean kategoria hauek bereiziko dira:

√ Gizonezkoak eta emakumezkoak.

- Gazteak, B maila (16 urte artekoak): proba ospatzen den urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean gehienez ere 15 urte beteko dituzten kirolariak.
- Gazteak, A maila (18 urte artekoak): proba ospatzen den urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean 17 urte beteko dituzten kirolariak.
- Junior maila (20 urte artekoak): proba ospatzen den urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean 19 urte beteko dituzten kirolariak.
- Beteranoak (40 urtetik gorakoak).

Kategoria bakoitzean gutxienez 5 parte hartzailek eman behar dute izena. Kopuru horretara iristen ez badira, antolatzaileek erabakiko dute nola jokatu.

3.1.9.- Puntuazio sistema:

- Proba bakoitzean, sailkapena 3.1.8 atalean zehazten denaren arabera egingo da.
- Proba bakoitzean, lehenengo hogeita hamarrei puntu hauek emango zaizkie:

1.a: 100 puntu	11.a: 31 puntu	21.a: 10 puntu
2.a: 80 puntu	12.a: 28 puntu	22.a: 9 puntu
3.a: 65 puntu	13.a: 26 puntu	23.a: 8 puntu
4.a: 55 puntu	14.a: 24 puntu	24.a: 7 puntu

KIROL ESKALADAKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA

5.a: 51 puntu	15.a: 22 puntu	25.a: 6 puntu
6.a: 47 puntu	16.a: 20 puntu	26.a: 5 puntu
7.a: 43 puntu	17.a: 18 puntu	27.a: 4 puntu
8.a: 40 puntu	18.a: 16 puntu	28.a: 3 puntu
9.a: 37 puntu	19.a: 14 puntu	29.a: 2 puntu
10.a: 34 puntu	20.a: 12 puntu	30.a: 1 puntu

- Gainerakoei 0 puntu emango zaizkie.
- Azken sailkapena lehiakideek lortutako emaitzen arabera zehaztuko da. Berdinketarik gertatuz gero, leku berean berdinduta gelditu diren lehiakideek leku horri dagozkion puntuak eskuratuko dituzte. Ondoren sailkatutako lehiakideek aurretik sailkatutako lehiakideen kopuruaren arabera dagozkien lekuak beteko dituzte, aurreko lehiakideak berdinduta egon edo ez.
- Lehiaketa bakoitza amaitu ondoren, lortzen diren puntuak horrela erantsiko dira:
 - 6 lehiaketa izan badira, gehienez ere 5 emaitza onenak hartuko dira kontuan.
 - 5 lehiaketa izan badira, gehienez ere 4 emaitza onenak hartuko dira kontuan.
 - 4 edo 3 lehiaketa izan badira, gehienez ere 3 emaitza onenak hartuko dira kontuan.
 - Lehiaketa amaitzean sailkapeneko edozein lekutan bi lehiakide berdinduta badaude, berdinduta dauden bi lehiakide horiek lehiatu diren lehiaketetan lortu dituzten puntuak kontuan hartuta balioetsiko dira. Berdinduta jarraitzen badute, lehiakideak leku horretan berdinduta gelditu direla hartuko da kontuan.

3.1.10.- Kirol Eskaladako Euskal Kopa amaitzean, eta ospatzen den azken lehiaketari dagozkion sariak banatu ondoren, txapeldunak, txapeldunordeak eta hirugarren lekuan sailkatutakoak izendatuko dira, bai gizonezkoen mailan eta bai emakumezkoen mailan, eta dagozkien garaikurrak banatuko zaizkie.

3.2.- KIROL ESKALADAKO ZAILTASUN MODALITATEKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

3.2.1.- Antolatzaileekin egindako hitzarmenean EMFk ezarritako baldintzen arabera, hauek Kirol Eskaladako Zailtasun modalitateko Euskal Herriko Txapelketa antolatuko dute, araudi hau eta indarrean dauden arau teknikoak betez.

3.2.2.- Lehiaketa bistako zailtasun eskalada modalitatean garatuko da, eta bi fase bereiziko dira bertan: lehenengoa sailkapen proba izango da, eta bigarrena, berriz, finala, biak kategoría bakoitzean, eta modalitate horretako araudia zehatz-mehatz bete behar da (ikus 4. atala).

3.2.3.- Azken sailkapena iristen den azken heldulekuaren arabera egingo da. Berdinketa gertatuz gero, eskalatzaileen arteko berdinketatzat hartuko da.

3.2.4.- Txapelketan parte hartzeko aukera izateko, parte hartzaileek urte horretako EMFren lizentzia izan behar dute.

3.2.5.- Proba guztiak banaka jokatu dira. 18 urte bete gabe dituzten parte hartzaileek gurasoen baimena aurkeztu behar dute.

3.2.6.- 18 urtetik beherako parte hartzaile guztiak gurasoen baimena erakutsi beharko dute lehiaketan parte hartu ahal izateko.

Parte hartzaileen artean kategoría hauek bereiziko dira:

└ Gizonezkoak eta emakumezkoak.

- Gazteak, B maila (16 urte artekoak): proba ospatzen den urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean gehienez ere 15 urte beteko dituzten kirolariak.
- Gazteak, A maila (18 urte artekoak): proba ospatzen den urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean 17 urte beteko dituzten kirolariak.
- Junior maila (20 urte artekoak): proba ospatzen den urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean 19 urte beteko dituzten kirolariak.
- Beteranoak (40 urtetik gorakoak).

Kategoría bakoitzean gutxienez 5 parte hartzailek eman behar dute izena. Kopuru horretara iristen ez badira, antolatzaileek erabakiko dute nola jokatu.

3.2.7.- Kirol Eskaladako Euskal Herriko Gazteen Txapelketa amaitzean, gizonezkoen eta emakumezkoen kategorietako txapeldunak, txapeldunordeak eta hirugarren lekuan sailkatutakoak izendatuko dira, eta dagozkien garaikurrak banatuko zaizkie.

3.3.- BLOKEKO EUSKAL KOPA

3.3.1.- Antolatzaileekin egindako hitzarmenean EMFk ezarritako baldintzen arabera, hauek Blokeko Euskal Kopa antolatuko dute, araudi hau eta indarrean dauden arau teknikoak betez.

3.3.2.- Lehiaketa bistako zailtasun eskalada modalitatean garatuko da, eta bi fase bereiziko dira bertan: lehenengoa sailkapen proba izango da, eta bigarrena, berriz, finala, biak kategoría bakoitzean, eta modalitate horretako araudia zehatz-mehatz bete behar da (ikus 4. atala).

3.3.3.- Azken sailkapena iristen den azken heldulekuaren arabera egingo da. Berdinketa gertatuz gero, eskalatzaileen arteko berdinketatzat hartuko da.

KIROL ESKALADAKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA

3.2.4.- Kirol Eskaladako Euskal Herriko Txapelketa Absolutuan parte hartzeko aukera izateko, parte hartzaileek urte horretako EMFren lizentzia izan behar dute.

3.3.5.- Parte hartzaileen artean kategoría hauek bereiziko dira: emakumezkoen eta gizonezkoen maila absolutuak, eta beteranoak (40 urtetik gorakoak).

Kategoria bakoitzean gutxienez 5 parte hartzailek eman behar dute izena. Kopuru horretara iristen ez badira, antolatzaileek erabakiko dute nola jokatu.

3.3.6.- Kirol Eskaladako Blokeko Euskal Kopa amaitzean, gizonezkoen eta emakumezkoen kategorietako txapeldunak, txapeldunordeak eta hirugarren lekuan sailkatutakoak izendatuko dira, eta dagozkien garaikurrak banatuko zaizkie.

3.4.- BLOKEKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

3.4.1.- Antolatzaileekin egindako hitzarmenean EMFk ezarritako baldintzen arabera, hauek Blokeko Eskaladako Euskal Herriko Txapelketa antolatuko dute, araudi hau eta indarrean dauden arau teknikoak betez.

3.4.2.- Lehiaketa bi fasetan garatuko da: lehengoa sailkapen proba izango da, eta bigarrena, berriz, finala, biak kategorietako bakoitzean. Proba egun bakarrean egingo da.

3.4.3.- Lehiaketa blokeko zailtasun eskalada modalitatean garatuko da, eta modalitate horri dagokion araudia zehatz-mehatz bete behar du (ikus 5. atala).

3.4.4.- Txapelketan parte hartu ahal izateko, parte hartzaileek urte horretako EMFren lizentzia izan behar dute.

3.4.5.- Parte hartzaileak kategoría hauetan bereiziko dira: emakumezkoen eta gizonezkoen maila absolutuak, eta beteranoak (40 urtetik gorakoak).

Kategoria bakoitzean gutxienez 5 parte hartzailek eman behar dute izena. Kopuru horretara iristen ez badira, antolatzaileek erabakiko dute nola jokatu.

3.4.6.- Blokeko Euskal Herriko Txapelketa amaitzean, gizonezkoen eta emakumezkoen kategorietako Blokeko Euskal Herriko Txapelketako txapeldunak, txapeldunordeak eta hirugarren lekuan sailkatutakoak izendatuko dira, eta dagozkien garaikurrak banatuko zaizkie.

3.5.- EMF-REN BESTE EDOZEIN TXAPELKETA OFIZIAL

EMFk sor daitekeen beste edozein modalitate araupetu dezake, eta kanpoko antolatzaileekin hitzarmen egokiak egin ahal izango ditu txapelketa ofizialak formatu egokienean ospatzeko.

4.- BISTAKO ZAILTASUN ESKALADA MODALITATERAKO ARAUDIA

4.1.- ESKALADA MURRUA

EMFk baimendutako edo babestutako lehiaketa guztiak diseinu jakin bati jarraituz eta eskalada murren artifizialean diseinatuko dira; murrak gutxienez 12 metroko altuera izango du, hala, gutxienez 15 metroko luzera eta 3 metroko zabalera duten bideak ezarri ahal izateko; eta makurgunea izatea gomendatzen da.

Eskalada murraren azalera osoak eskalatzeko egokia izan behar du.

Egituraren alboetako ertzak ez dira erabiliko eskalatzeko, eta murraren goiko zatia ere ezin izango da erabili, horretarako egokituta ez badago.

Murraren bide bat beste batetik bereizteko mugatzea beharrezkoa baldin bada, mugaketa erraz identifikatu daitekeen marka jarraitu bat erabiliz egingo da.

Eskalatzaileren irteerako posizioa gutxi gorabehera eskalada murrutik metro batera kokatuko da, eta kasu guztietan Bideko Epaileak ematen dizkion jarraibideak beteko ditu.

Zintzilikatzeko gunea eta espres zintak modu argian ikusi beharko dira.

Bideko azken heldulekua markatu egingo da (TOP).

4.2.- BISTAKO ZAILTASUN ESKALADA

Zailtasun modalitatea erabiltzen duten eskaladako lehiaketak honela definitzen dira: soka buruan eskalatzen den lehiaketak dira, eta lehiakideak zorutik igotzen da eta espres zinta bakoitza mosketoiarekin lotzen du, aurrera egiteko sistema gisa murrak uzten dizkion heldulekuak erabiliz soilik. Lortutako altuerak (edo zeharkako sekzioen kasuan, bidearen ardatzaren distantziarik handienak) zehaztuko du lehiakidearen sailkapena lehiaketaren itzuli horretan.

Bistako zailtasun eskalada modalitatea erabiltzen duten lehiaketan, saioa egin aurretik behatzeko baimendutako denbora tarte bat du lehiakideak, baina epe horretan lortzen duen informazioaz aparte ez du bidez bestelako informaziorik.

4.3.- SEGURTASUNA

Lehiaketan segurtasunarekin lotutako neurri guztiak hartu behar dira. Bide bakoitza lehiakidearen erorketa saihesteko moduan diseinatuko da, izan ere, erorketa horren ondorioz:

- Lehiakidea lesiona baitaiteke.

KIROL ESKALADAKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA

- Beste lehiakide bat lesiona edo oztopa baitezake.

Bideko Epaileak eta Ekipatzaile Ordezkariek bide bakoitza ikuskatu behar dute lehiaketaren itzuli bakoitza hasi aurretik, hala, segurtasun neurri estandarrak betetzen direla egiaztatzeko.

Bereziki, Bideko Epaileak eta Ekipatzaile Ordezkariek:

Ekipo guztiak eta segurtasun neurriek UIAA/CEren estandarrak eta araudi hau betetzen dituztela egiaztatatu behar dute.

Aseguratzailerak beren lana egiteko gaitasuna dutela egiaztatuko dute. Bideko Epaileak edozein aseguratzaile edo segurtasuna arriskuan jartzen duen beste edonor ordezkatzeko eskatzeko aginpidea du.

Soka lehenengo babes puntutik edo beste edozeinetatik pasatu behar den erabakiko dute.

Itzuli bakoitza hasi baino lehen, lehiakideren batek edo lehiaketa eremuaren barnean lan egiten duen beste edozein ofizialek istripu edo lesioren bat izanez gero osasun arloko laguntza egokia izango duela egiaztatuko du Bideko Epaileak.

Lehiaketan erabilitako material guztiak UIAA/CEren estandarrak bete behar ditu, EMFk bestelakorik zehazten ez badu.

Betebehar orokorrak:

- Lehiaketako kamiseten kasuan izan ezik (lehiaketako antolatzaileek banatuko dituzte, lehiakide guztiek jantzi behar dituzte eta ezingo dituzte moztu edo aldatu), lehiakideek edozein markatako arnesak (aldakako arnesa eramatea derrigorrezkoa da), eskalatzeko oinetakoak, magnesio poltsak edo jantziak eraman ahal izango dituzte.
- Lehiakideek antolatzaileek emandako soka sinple bat erabiliko dute. Bideko Epaileak, Ekipatzaile Ordezkariekin batera, zehaztuko du soka hori aldatzeko maiztasuna.
- Lehiakideek zortzi bikoitzeko korapiloa erabili ahal izango dute soilik sokari lotzeko.

Soka pasatu behar ez duen mosketoia orok segurtasuneko itxitura izan behar du, edo 10 mm-ko eta homologatutako Maillón Rapide bat.

Zinta arrunt bat luzatzea beharrezkoa denean kate bat erabili ahal izango da: mosketoia, zinta, mosketoia, zinta eta mosketoia; edo erresistentzia zinta luze bat, espres zintaren berdina edo handiagoa. (Zinta bakar bat erabiltzea gomendatzen da, eta beharrezko neurria eta erresistentzia berdina edo handiagoa izan behar du).

Soka igaroko den mosketoien arteko gehieneko distantzia bi metrokoa izango da.

Epaimahaiko Lehendakariak segurtasun neurriak betetzen ez dituen edonor lehiaketa gunetik botatzeko eskatzeko aginpidea izango du.

4.4.- LEHIAKETARAKO IZEN EMATEA

Proban parte hartzeko beharrezkoa da EMFren urte horretako lizentzia izatea; beharrezkoa da, halaber, izena ematea, eta antolatzaileek erabakiko dute noiz itxiko den izena emateko epea.

4.5.- BILERA TEKNIKOA

Antolatzaileek hala erabakitzen dutenean, bilera teknikoa egingo da, eta honako hauei buruzko informazioa eskainiko da:

- Aldez aurretiko izen emateen baieztapena
- Zozketa eta parte hartzaileak igarotzeko ordena.
- Sarrera orduak eta berotze gunea.
- Lehiaketa hasteko ordua.
- Aldi bereko edo txandakako garapen sistema (G - E).
- Araudiaren zehaztasunak, halakorik balego.
- Bidea egiteko denbora eta zailtasun teknikoa.

4.6.- HASTEKO ORDENA

Lehenengo fasea (sailkapena) hasteko ordena zehazteko epaileek zozketa egingo dute izena eman duten parte hartzaile guztien artean, bide bakarra egin behar badute.

Azken itzulirako, hasteko ordena aurreko itzulian lortutako sailkapenaren alderantzizkoa izango da. Hainbat lehiakide toki berean baldin badaude, berdinduta dauden lehiakideak hasteko ordena zozketa bidez erabakiko da.

Superfinala egin behar bada, hasteko ordena finaleko itzuliko bera izango da.

Itzuli bakoitzeko hasteko ordena iragarki taula ofizialean eta informazioa emateko ezar daitezkeen bestelako tauletan ezarriko da.

4.7.- IZENA EMATEKO GUNEA ETA BAKARTZE GUNEA

Lehiaketa batean parte hartu nahi duten lehiakide guztiek izena eman behar dute, eta Epaimahaiko Lehendakariak zehaztutako orduan eta lehiaketaren antolatzaileek adierazitakoan sartu behar dute bakartze gunean, ez beranduago.

KIROL ESKALADAKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA

Behin bakartze gunean sartu ondoren ezingo dira bertatik irten; lehiakideren batek ezinbestean bakartze gunetik irten beharko balu, justifikatu egin beharko du eta Epaimahaiko Lehendakariari baimena eskatu beharko dio; arau horiek errespetatuko ez balitu, lehiaketatik kanpo utziko da.

Lehiaketa hasi aurretik bakartze gunea ixten denean, une horretan bakartze gunean ez dagoen edozein lehiakide lehiaketatik kanpo utziko da.

Beherago zehaztutako pertsonak baino ezingo dira bakartze gunean sartu (horretarako, aurretik egiaztagiria erakutsi behar dituzte):

- Lehiaketako epaileak.
- Lehiaketako antolatzaileak.
- Lehiaketaren itzuli horretan parte hartzeko aukeratutako lehiakideak.
- EMFko parte hartzaile teknikoak, edo baimendutako eskalatzaileenak. Epaileek, egoki baderitzote, bakartze guneko pertsona kopurua murriz dezakete.

Bakartze gunean ezin dira animaliak sartu.

Lehiaketa garaian dagoenean ezingo da inor bakartze gunean sartu, lehiatzeko beren txandaren zain dauden eskalatzaileak, Epaileak edo Epaimahaiko Lehendakariak baimendutako pertsonak izan ezik, eta hauek begien bistan eraman beharko dute dagokien egiaztagiria.

4.8.- BIDEA EGITEKO DENBORA

Bidea egiteko denbora Epaimahaiko Lehendakariak zehaztuko du, Ekipatzaile Ordezkariekin kontsultatu ondoren, eta lehiaketarako ordena ofiziala ematen zaien unean adieraziko zaie eskalatzaileei.

Eskalatzen ari den bitartean gelditzen zaion denbora esateko eska dezake eskalatzaileak, eta Bideko Epaileak denbora agortzeko zenbat minutu eta segundo falta diren esango dio.

Denbora agortzeko minutu bat falta denean, Bideko Epaileak lehiakideari adierazi behar dio beti.

Bidea egiteko denbora agortzen denean, Bideko Epaileak gelditzeko eskatuko dio lehiakideari, eta jarraibideak emango ditu neurtzeko prozedurak azken heldulekutik egiteko, denbora noiz amaitu den kontuan hartuta. Lehiakideak agindutakoa egiten ez badu, Diziiplina Araubidean (9. atala) ezarritako neurriak hartuko dira.

4.9.- BEHATZEKO DENBORA

Epaimahaiko Lehendakariak kontrakoa zehazten ez badu, lehiaketaren itzuli batean izena eman duen lehiakideak lehiaketa hasi aurretik behatzeko denbora zehatz bat izango du bidea aztertzeko.

Behaketa prozesuan lehiakideek bakarrik egon behar dute, eta ezingo dute behaketa gunetik kanpo kokatutako beste edonorekin inolako komunikaziorik izan.

Behatzeko denbora Epaimahaiko Lehendakariak erabakiko du, Ekipatzaile Ordezkariekin aholkuei jarraituz, baina gehienez ere 6 minutukoa izango da.

Lehiakideek behaketa gune gisa esleitutako tokian egon behar dute. Ez zaie utziko horma ukitzen.

Behatzeko denboran, lehiakideek prismatikoak erabili ahal izango dituzte eta oharrak jaso edo marrazkiak (eskuz) egin ditzakete. Ez da bestelako grabazio ekiporik onartuko.

Behatzeko denbora amaitutakoan, lehiakideak bakartze gunera itzuliko dira berehala. Bakartze gunera itzultzeko garaian atzerapenen bat gertatuko balitz, "Txartel Horia" atera diezaiekete, eta hala ere gehiago atzeratzen badira, automatikoki lehiaketatik kanpo utziko dira, Diziiplina Araubideari jarraituz (9. atala).

Superfinala egin behar bada, Epaimahaiko Lehendakariak erabakiko du behatzeko denborarik izango den edo ez.

4.10.- IGAROTZE GUNEA ETA ESKALATZEN HASI AURREKO PRESTAKUNTZA

Bidearen saioarekin hasi aurretik, lehiakide bakoitzari baimendutako ofizial batek lagunduko dio bakartze gunetik eskalada hormaren ondoko igarotze gunera. Lehiakideak ezingo du igarotze gunetik ez bidea edo horiekin lotutako egoerak, ez murruren gainazala, ez bidea egiten ari den beste lehiakideren bat ikusi.

Igarotze gunean, lehiakideek bakarrik egon behar dute.

Igarotze gunera iristen denean, lehiakide bakoitzak bere arnesa eta eskalatzeko oinetakoak jantziko ditu, soka zortzi bikoitzeko korapiloarekin lotuko du, eta bidearen saioa egiteko azken prestakuntza guztiak egingo ditu.

Eskalatzen hasi aurretik, lehiakidearen eskalatzeko ekipo guztia eta korapiloa baimendutako ofizial batek egiaztatu eta onartu behar ditu.

Lehiakide bakoitzak prest egon behar du igarotze gunea utzi eta lehiaketa gunera joateko hala agintzen diotenean. Edozein atzerapen gertatuz gero "Txartel Horia" atera diezaiekete, eta hala ere gehiago atzeratzen bada, automatikoki lehiaketatik kanpo utziko da, Diziiplina Araubideari jarraituz (9. atala).

4.11.- ESKALATZEKO PROZEDURA

Lehiaketa gunean sartzen denean eta eskalada murruren oinarrira iristen denean, lehiakideari irteera lerro ofizialaren gainean kokatzeko eskatuko zaio. Une horretan Bideko Epailea lehiakideak saio horretan erabiliko duen denbora erregistratzen hasiko da. Lehiakide bakoitzak 40 segundo izango ditu bidearen saioa egiten hasi aurretik. 40 segundo horiek amaitutakoan lehiakidea bidearen saioarekin hasi ez bada, berehala bidearekin hasteko aginduko zaio. Edozein atzerapen gertatuz gero lehiakidea lehiaketatik kanpo gera daiteke.

Bidea egiteko denbora 4.8 puntuaren arabera zehaztuko da; denbora tarte horretan aurreko atalean prestakuntza lanetarako deskribatutako 40 segundoak barne hartuko dira.

Lehiakidearen bi oinek lurra uzten dutenean bidearen saioa egiten hasi dela ulertuko da.

Eskalatze prozedura 4.2 puntuan deskribatutakoa izango da.

Bidearen saioa egiterakoan:

- Lehiakide bakoitza ondoz ondoko espres zintetara lotuko da.
- Espres zinta bakoitza lehiakidearen gorputzaren zatirik baxuena zintako mosketoi baxuenaren gainetik mugitu baino lehen erabili beharko da (ibilbidea sabaian egin behar bada, lehiakidearen gorputza aseguratu gabeko mosketoia baino aurrerago mugitu baino lehen). Bideko Epaileak arau horiek betetzeko eskatuko dio lehiakideari; hala ere, lehiakideak araua betetzen ez badu, Bideko Epaileak saioa amaitutzat joko du puntu horretan, eta legezko kokapenean lortutako azken heldulekua hartuko du kontuan. Lehiakideak Bideko Epaileak bideko saioa amaitutzat jo duenean emandako aginduak betetzen ez baditu, Bideko Epaileak lehiaketatik kanpo utziko du lehiakidea.

Egoera berezietan, Epaimahaiko Lehendakariak aurreko artikulua aldatu edo zuzendu ahal izango du.

Lehiakideak zinta bat mosketoian sartzen ez badu, Bideko Epaileak bideko beste edozein puntutara edo lurrera itzultzeko eska diezaioke.

4.12.- ESKALADAREN AMAIERA

Lehiakide bat bide batean egiten ari den saioa amaitu egingo da honako kasu hauetan:

- Lehiakidea erortzen bada.
- Bidea egiteko zuen denbora amaitzen bada.
- Bidean markatutako mugetatik kanpo murruren zatiren bat ukitzen badu.
- Murruren alboetako ertzak edo gailurra erabiltzen baditu.
- Gorputzaren zatiren batekin lurra ukitzen badu.
- Edozein laguntza artifizial erabiltzen badu (segurtasun puntuak nahiz zintzilikatzeak).
- Aseguratzeari uzten badio edo Bideko Epailearen eskariak egiten ez baditu.

Lehiakide bat bide batean egiten ari den saioa geldiarazten bada, lehiakide horrek lortutako altueraren neurketa ukitu edo hartu duen heldulekurik garaienera arte egingo da (edo eskalada zeharka edo sabaian egin bada: progresio lerroan urrutien ukitutako edo hartutako heldulekua). Kontuan hartuko diren heldulekuak hauek dira: Ekipatzaile Ordezkariek hala definitu dituenak edo lehiakideren batek lehiaketan positiboki erabili dituenak.

Lehiakide batek atzera egin ahal izango du bere saioak irauten duen denboran, eta erortzen bada, aurrez ukitu duen heldulekurik altuena hartuko da kontuan.

Bideko Epaileak erabakiko du helduleku bat hartu den ala ez. Eskuarekin hartutako edo ukitutako heldulekuak baino ez dira kontuan izango neurketa egiteko.

Lehiakide bat iritsi den heldulekurik altuena ukitu egin dela onartzen bada, lehiakideak helduleku horren altuera (-) ikurraekin jasoko du.

Lehiakide bat iritsi den heldulekurik altuena hartu egin dela onartzen bada eta lehiakideak bere gorputzaren beste atalik mugitzea lortu ez badu, helduleku horren altuera ikurrik gabe jasoko du.

Lehiakide bat iritsi den heldulekurik altuena hartu egin dela onartzen bada eta lehiakideak bere gorputzaren beste atalen bat mugitzea lortu badu hurrengo heldulekura iristen saiatzeko, lehiakideak helduleku horren altuera (+) ikurraekin jasoko du.

Lehiakide batek heldulekurik gabeko puntu bat ukitzen badu, puntu hori ez da kontuan hartuko gehieneko altuerari edo distantziari dagokien neurketa egiterakoan.

Lehiakide batek gehieneko altuera edo gailurra (TOP) lortuko du bide batean, katea eskalada murruko azkeneko heldulekutik lotzea lortzen badu. Kateari helduko balio, horman hartutako azkeneko heldulekua (+) ikurraekin puntuatuko litzaioke.

Lehiakide batek bere lana amaitzen duenean, lurrera jaitsiko dute berehala eta lehiaketa gunetik irtengo da.

4.13.- BIDEO EKIPOAREN ERABILERA

Epaileek antolatzaileei filmatzeko ekipo bat emateko eskatuko diete, lehiaketa osoa filmatu ahal izateko. Zalantzarik edo erreklamaziorik izanez gero, epaileek filmatutakoa ikusiko dute. Filmazioa epaileen barne erabilerarako tresna bat da, eta ondoren, EMFri bidaliko zaio; eta inoiz ezin izango dute ikusi ez lehiakideek eta ez ordezkariak.

Filmazio horiek EMFren esku geratuko dira, izan daitezkeen erreklamazioetarako froga modura.

4.14.- MURRUAREN MANTENTZE LANAK

Epaileek eta Ekipatzaile Ordezkariek lehiaketaren itzuli bakoitzean eskalada murrua modu egokian mantentzeaz arduratuko dira.

Lehiaketan heldulekuren bat hautsiko edo mugituko balitz: Bideko Epailearen jarraibideak kontuan hartuz, ekipatzaile ordezkariek edozein konponketa lan egingo edo berrikusiko du, eta Epaimahaiko Lehendakariari egindakoaren berri emango dio. Konponketaren emaitzak hurrengo lehiakideei abantaila edo desabantailaren bat ekar badieziaiekete, Epaimahaiko Lehendakariak itzuli horrekin jarraitzea edo geldiaraztea eta berriro hastea erabaki dezake. Epaimahaiko Lehendakariaren erabakia apelaezina da. Heldulekuen garbiketa: eskalada murruetako heldulekuak garbitzeko maiztasuna eta metodoa Epaimahaiko Lehendakariak erabakiko du (Ekipatzaile Ordezkariei kontsultatu ondoren) lehiaketako itzuli bakoitza hasi aurretik.

4.15.- GORABEHERA TEKNIKOAK

Bideko Epaileak gorabehera tekniko bat gertatu dela adieraz dezake ondoko kasu hauetan:

- Lehiakideari laguntzen edo eragozpenen bat sortzen dion tentsiorik baldin badago sokan.
- Helduleku bat apurtuta edo askatuta baldin badago.
- Gaizki jarritako espres zinta bat edo mosketoi bat baldin badago.
- Lehiakide bati desabantaila edo abantaila bat ekar diezaiokeen beste edozein gertaera sortu bada, lehiakidearen beraren ekintzaren emaitza ez denean.

Bideko Epaileak gorabehera teknikoa gertatu dela adierazi beharko du lehiakideak, kanpoko laguntzen ondorioz, abantaila izango duen edozein gertaera jazotzen bada.

Bideko Epaileak, eskalatzaileak hala eskatuta, gorabehera teknikoa adierazi ahal izango du ondoko kasuetan:

- a) Gorabehera teknikoaren ondorioz lehiakideak legezko kokapena ez duenean, eta Bideko Epaileari gorabehera teknikoa adierazteko eskatzen dionean eta horrek arrazoia ematen dionean. Heldulekuren bat mugitu bada edo horren inguruan zalantzaren bat badago, Bideko Epaileak igotzeko eskatuko dio ekipatzaileari, heldulekua mugitu egin dela egiaztatzeko.
- b) Gorabehera teknikoa gertatu arren lehiakideak legezko kokapena duenean, baina Bideko Epaileari gorabehera teknikoa adierazteko eskatzen dionean. Lehiakideak zer gertatu den zehaztu behar du, eta Bideko Epaileak bidea egiteko saioa bertan behera uzteko onespena eman arte itxaron beharko du.

Gorabehera teknikoa gertatzen bada eta eskalatzaileak, legezko jarrera duelako, eskalatzen jarraitzea erabakitzen badu eta ondoren erorketaren bat gertatzen bada, ezingo du gorabehera teknikoa eskatu.

Gorabehera teknikoa jasan duen lehiakideari bakartze gunean indarrak berreskuratzeko denbora bat emango zaio, baina ezingo du inolako harremanik izan beste lehiakideekin edo teknikariek. Lehiakideak berehala erabaki behar du hurrengo saioa noiz hasi nahi duen, eta berehala edo hurrengo bosgarren lehiakidearen aurretik izan behar du. Lehiaketan horrenbeste eskalatzaile geldituko ez balira, lehiakideari gutxienez 20 minutuko epea emango zaio bidea berriro egiten saiatu aurretik.

Gorabehera teknikoa jasan duen eskalatzailearen erregistroa bidean egindako saioen emaitzarik onena izango da.

4.16.- SAILKAPENA ETA ITZULI BAKOITZERAKO KUOTAK

Lehiaketako itzuli bakoitzaren ondoren, lehiakideak lortutako altuera handienaren arabera (dagokion ikurrarekin) kokatuko dira sailkapenean, 4.12 atalean zehaztutakoari jarraituz.

Sailkapen proba berdin-berdinak ez diren bi bidetan edo gehiagotan egiten bada, hurrengo itzulirako sailkatzen ez diren lehiakideak bideak txandakatuz lortu dituzten lekuen arabera kokatuko dira sailkapenean.

Itzuli bakoitzerako kuotak:

- Sailkapenerako erabiltzen den bidea gainditzen duen lehiakide oro finalean sartuko da.
- Sailkapenerako erabiltzen den bidea gainditzen duten lehiakideen kopurua aski ez denean, “kuota finkora” iritsi arteko lekuen kopurua ondoen sailkatu diren hurrengo lehiakideen bidez osatuko da.
- Finalerako “kuota finkoa” 8koa izango da.
- “Kuota mugikorrak”
 - Berdinketak gertatu direlako finaleko itzulirako sailkatuek zehaztutako kopurua gainditzen badute, “kuota finkotik” gertuen dagoen kopurua hartuko da (goitik eta behetik kalkulaturaz), kontuan hartuta lehiakideen kopuruak ezin duela izan 6tik beherakoa. Ez da “kuota mugikorra” aplikatuko, baldin eta aurreko itzulia berdin-berdinak ez diren bi bidetan edo gehiagotan egin bada.
 - Berdinketak gertatu direlako finaleko itzulirako sailkatuek “kuota finkoa” gainditzen badute, eta goitik eta behetik kalkulaturaz kopurua berdina denean, kopurua kuotarik

KIROL ESKALADAKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA

altuenari dagokio, egoera berezietan izan ezik (telebista, etab.), halakoetan txikiena izango baita.

Azken itzulia:

- Finala amaitu ondoren sailkapeneko lehenengo lekuan berdinduta gelditzen badira, berdinketa hautsi ahal izateko sailkapen proban lortutako emaitza balioetsiko da. Hala eta guztiz ere berdinduta jarraitzen badute, berdinduta dauden lehiakide horien artean beste lehiaketa itzuli bat egin beharko da: superfinala.
- Superfinala finaleko itzulian zati osagarritzat hartuko da, eta lehenengo lekuan gertatutako berdinketa hausteko helburua izango du.
- Baldin eta aurreko itzulia berdinduta ez diren bi bidetan edo gehiagotan egin bada, hau ez da kontuan hartutako azken itzuliko berdinketak hausteko.
- Epaimahaiko Lehendakariak, antolatzaileekin eta EMFko Ordezkariekin hitz egin ondoren, superfinala egitea edo ez egitea erabaki dezake, hala badagokio sailkapenean berdinketari eutsiz.
- Finalisten behin betiko sailkapena finalean lortutako emaitzekin egingo da; eta berdinketarik geratuz gero, sailkapen itzulian lortutako emaitzara joko da. Hala ere berdinketak jarraitzen badu: lehiakideak berdinketa hasi den lekurik gorenean berdinduta daudela kontsideratuko da, eta hurrengo eskalatazailerak, berdinduta dauden lehiakideen ondoren, aurretik dituen lehiakideen kopuruaren arabera ondoren dagokion lekua beteko du, aurrekoak berdinduta egon edo ez.
- Finalean sartu ez diren eskalatazailerak behin betiko sailkapena soilik sailkapen itzuliko emaitzak kontuan hartuta egingo da. Berdinketarik geratuz gero, lehiakide horiek goren lekuan berdinduta daudela kontsideratuko da, eta hurrengo lehiakideak beteko duen lekua aurretik dituen lehiakideen kopuruaren ondorengo izango da.

4.17.- LEHIKIDE BAT LEHIAKETATIK KANPORATZEA

Honako hauetakoren bat eginez gero, lehiakidea lehiaketatik kanpo utziko da berehala:

- Lehiakideari bakartze gunean egotea egokitzen zaionean, bertatik irteten bada, ezinbestekak bultzaturik edo Epaimahaiko Lehendakariaren baimenarekin ez bada.
- Antolatzaileek ezarritako itxiera orduaren ondoren iristen bada bakartze gunera.
- Horretarako bereziki zehaztutako behaketa gunetik kanpo behatzen baditu bideak.
- Behatzeko denbora amaitu ondoren bakartze gunera joan ez bada.
- Bakartze gunetik irteten bada, lehiatzeko txanda errespetatu gabe.
- Bidea hastean ekipo egokia ez badu.
- 4.11 atalean zehaztutakoa errespetatzen ez badu bidea hastean.

4.18.- DESKALIFIKAZIOA ETA ZIGOR DIZIPLINARIOA

Honako hauetakoren bat eginez gero, lehiakidea lehiaketatik kanpo utziko da berehala, eta zigor diziplinarioa ezartzea ekar dezake:

- Araudian barne hartu gabeko baliabideak erabiliz lehiakideak egin behar duen bide bati buruzko informazioa biltzea.
- Beste lehiakide bati informazioa eskaintzea, araudian onartutakotik kanpo.
- Prestatzen ari den edo bide bat saiateren ari den beste lehiakide bati arreta galaraztea edo oztopatzea.
- Bere funtzioak betetzen ari denean, ofizial bati arreta galaraztea edo oztopatzea.
- Epailen eta/edo antolamenduko ofizialen aginduak ez betetzea.
- Edozein zeremonia ofizialetan parte ez hartzea.
- Kamiseta ofiziala edo lehiakide zenbakia eramateari uko egitea.
- Jarrera eta hitz iraingarriak edo erasokorrak erabiltzea lehiaketa guneko, bakartze guneko edo igarotze guneko edonoren aurka.
- Kirol legerik gabeko jarrera, publikoa dagoen gunean.

Diziplina araudiarekiko ezar daitezkeen zigorrak 9. atalean deskribatutakoaren arabera ezarriko dira. Halaber, erreklamazio sistema 10. atalean deskribatutakoari jarraituz egingo da.

5.- BLOKEKO ZAILTASUN ESKALADA MODALITATERAKO ARAUDIA

5.1.- BLOKEKO ZAILTASUN ESKALADA

Blokeko zailtasun eskalada altuera txikiko eta zailtasun handiko bideak eskalatzean datza, eta berorietan, eskalatazailerak sokarik gabe doa, eta helburu nagusia problema amaitzea da.

5.2.- ESKALADA GUNEA

Modalitate honetako txapelketa ofizialetan erabilitako egiturak EMFk homologatu beharko ditu.

KIROL ESKALADAKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA

EMFk baimendutako edo babestutako lehiaketa guztiak diseinu jakin bati jarraituz garatuko dira, eskalada guneak edo boulderreko problemak gehienez izango duen altuerak ez du 3 metro baino gehiagoko erorketarik gerta dadin utziko, behean dagoen gorputz zatia hartuz, eta batzuk eta besteak ondo berezita egongo dira: ezin izango da besterik ikusi dauden tokitik.

Problemek gehienez ere eskuko 12 helduleku izango dituzte, eta problema guztien batez bestekoa eskuko 4 heldulekutik 8ra bitartekoa izango da.

Egituraren alboetako ertzak eta gailurrekoak ez dira eskalatzeko erabiliko.

Bide bakoitzean eskuineko eta ezkerreko mugak argi eta garbi bereiziko dira marka jarraitu batekin. Murruan bide bat bereizteko mugatzea beharrezkoa baldin bada, mugaketa erraz identifika daitekeen marka jarraitu bat erabiliz egingo da.

Bide baten saioari ekiteko eskuetako hasierako bi heldulekuak argi eta garbi markatuta egongo dira. Halaxe egongo dira sari puntuak lortzeko heldulekuak eta bide amaierako heldulekuak ere (ikus: 5.9 Eskalatzeko prozedura).

5.3.- SEGURTASUNA

Lehiaketan segurtasunarekin lotutako neurri guztiak hartuko dira. Bide bakoitza lehiakidearen erorketa saihesteko moduan diseinatuko da, izan ere, erorketa horren ondorioz lesiona baitaiteke. Problema guztietan lastairak ezarriko dira, segurtasunerako.

Bideko Epaileak eta Ekipatzaile Ordezkariek bide bakoitza ikuskatuko dute lehiaketaren itzuli bakoitza hasi aurretik, hala, segurtasun neurri estandarrak betetzen dituztela egiaztatuko.

Bereziki, Bideko Epaileak eta Ekipatzaile Ordezkariek:

- Ekipo guztiak eta segurtasun neurriek UIAA/CEren estandarrak eta EMFren araudia betetzen dituztela egiaztatu behar dute.
- Bideak bakarka egiten dituztela ziurtatuko dute, eta lurra beldurra kentzeko lastaira edo koltxonetekin nahikoa babestuta dagoela ere ziurtatuko dute.
- Geraldarako aseguratzaileak badago, hauek beren lana egiteko gaitasuna dutela egiaztatuko dute. Bideko Epaileak edozein aseguratzaile edo segurtasuna arriskuan jartzen duen beste edonor ordezkatzeko eskatzeko aginpidea du.

Itzuli bakoitza hasi baino lehen, lehiakideren batek edo lehiaketa eremuaren barnean lan egiten duen beste edozein ofizialek istripu edo lesioren bat izanez gero osasun arloko laguntza egokia izango duela egiaztatuko du Bideko Epaileak.

Lehiaketan erabilitako material guztiak UIAA/CEren estandarrak bete behar ditu, EMFk bestelakorik zehazten ez badu.

- Lehiaketako kamiseten kasuan izan ezik (lehiaketako antolatzaileek banatuko dituzte, lehiakide guztiek jantzi behar dituzte eta ezingo dituzte moztu edo aldatu), lehiakideek edozein markatako eskalatzeko oinetakoak, magnesio poltsak edo jantziak eraman ahal izango dituzte.

Epaimahaiko Lehendakariak segurtasun neurriak betetzen ez dituen edonor lehiaketa gunetik botatzeko eskatzeko aginpidea izango du.

5.4.- LEHIKETARAKO IZEN EMATEA

Proban parte hartzeko beharrezkoa da EMFren urte horretako lizentzia izatea; beharrezkoa izango da, halaber, izena ematea, eta antolatzaileek erabakiko dute noiz itxiko den izena emateko epea

5.5.- BILERA TEKNIKOA

Antolatzaileek hala erabakitzen dutenean, bilera teknikoa egingo da, eta honako hauei buruzko informazioa eskainiko da:

- Izen emateen baieztapena
- Parte hartzaileak igarotzeko ordena.
- Sarrera orduak eta berotze gunea.
- Lehiaketa hasteko ordua.
- Problema kopurua eta itzulietako igarotze sekuentziak.
- itzuli bakoitzerako zehaztutako denbora tartea.
- Finalean sartzeko kuotak.
- Araudiaren zehaztasunak, halakorik balego.

5.6.- HASTEKO ORDENA

Lehenengo fasea (sailkapena) hasteko ordena zehazteko epaileek zozketa egingo dute izena eman duten parte hartzaile guztien artean.

Azken itzulirako, hasteko ordena aurreko itzulian lortutako sailkapenaren alderantzizkoa izango da. Hainbat lehiakide toki berean baldin badaude, berdinbata dauden lehiakideak hasteko ordena zozketa bidez erabakiko da.

Superfinala egin behar bada, hasteko ordena finaleko itzuliko bera izango da.

5.7.- IZENA EMATEKO GUNEA ETA BAKARTZE GUNEA

Lehiaketa batean parte hartu nahi duten lehiakide guztiak izena eman behar dute, eta Epaimahaiko Lehendakariak zehaztutako orduan eta lehiaketaren antolatzaileek adierazitakoan sartu behar dute bakartze gunean, ez beranduago

Behin bakartze gunean sartu ondoren ezingo dira bertatik irten; lehiakideren batek ezinbestean bakartze gunetik irten beharko balu, justifikatu egin beharko du eta Epaimahaiko Lehendakariari baimena eskatu beharko dio; arau horiek errespetatuko ez balitu, lehiaketatik kanpo utziko litzateke.

Lehiaketa hasi aurretik bakartze gunea ixten denean, une horretan bakartze gunean ez dagoen edozein lehiakide lehiaketatik kanpo utziko da.

Beherago zehaztutako pertsonak baino ezingo dira bakartze gunean sartu (horretarako, aurretik egiaztagiriak erakutsi behar dituzte):

- Lehiaketako epaileak.
- Lehiaketako antolatzaileak.
- Lehiaketaren itzuli horretan parte hartzeko aukeratutako lehiakideak.
- EMFko parte hartzaile teknikoak, edo baimendutako eskalatzaileenak. Epaileek, egoki baderitzote, bakartze guneko pertsona kopurua murriz dezakete.

Bakartze gunean ezin dira animaliak sartu.

Lehiaketa garaian dagoenean ezingo da inor bakartze gunean sartu, lehiatzeko beren txandaren zain dauden eskalatzaileak, Epaileak edo Epaimahaiko Lehendakariak baimendutako pertsonak izan ezik, eta hauek begien bistan eraman beharko dute dagokien egiaztagiria.

5.8.- IGAROTZE GUNEA ETA ESKALATZEN HASI AURREKO PRESTAKUNTZA

Bidearen saioarekin hasi aurretik, lehiakide bakoitzari baimendutako ofizial batek lagunduko dio bakartze gunetik lehenengo boulder gunearen ondoko igarotze gunera. Lehiakideak ezingo du igarotze gunetik ez bidea edo horiekin lotutako egoerak, ez murruren gainazala, ez bidea egiten ari den beste lehiakideren bat ikusi.

Igarotze gunean, lehiakideek bakarrik egon behar dute.

Igarotze gunera iristen denean, lehiakide bakoitzak eskalatzeko oinetakoak jantziko ditu, eta bidearen saioari ekiteko azken prestakuntza guztiak egin beharko ditu.

Eskalatzeko hasi aurretik, eskalatzeko ekipo guztia baimendutako ofizial batek egiaztatu eta onartu beharko ditu. Baimendu gabeko ekiporen bat erabiliz gero edo kamiseta ofizialean aldaketaren bat eginez gero, lehiakidea kanporatua izango da.

Lehiakide bakoitzak prest egon behar du igarotze gunea utzi eta lehiaketa gunera joateko hala agintzen diotenean. Edozein atzerapen gertatuz gero "Txartel Horia" atera diezaiokete, eta hala ere gehiago atzeratzen bada, automatikoki lehiaketatik kanpo utziko da, Diziplina Araubideari jarraituz (9. atala).

5.9.- ESKALATZEKO PROZEDURA

Lehiaketako itzuli bakoitzean, eskalatzaileek segidan bideen kopuru bat egiten saiatuko dira (lehiaketako itzuli bakoitzean 4 gutxienez eta 8 gehienez).

Boulderreko problema bakoitzerako behatzeko epea eskalatzeko epearen barnean txertatuta egongo da. Gune bakoitzean lehiakideak bidea ikus dezakeen toki bat izango du markatuta. Lehiakideak inoiz ezin izango du ukitu eskalatzeko saioa egin behar duen bidea.

Boulderreko problema bakoitzak berau gaintzeko gehieneko denbora bat izango du esleituta, eta gehieneko denbora hori bera izango dute itzuli bereko problema guztiak. Denbora epe hori ez da 4 minutu baino laburragoa izango, ez eta 8 minutu baino luzeagoa ere.

Gune bakoitzean sartzen denean, irteerako marra ofizialera joateko eskatuko zaio lehiakideari, eta une horretan eskalatzaileak bideari ekin diezaiokete edo behatzen jarrai dezake. Bidea egiteko epea amaitzen denean, lehiakideak eskalatzeari utziko dio, eta prest egongo da hurrengo gunera joateko. Lehiakideak agintzen zaionean eskalatzeari uzten ez badio, kanporatu egingo da.

Boulderreko problema bakoitzak hasierako posizio bat izango du esleituta, eskuko bi heldulekukoa edo oinetarako bi heldulekukoa, edota eskuko bi helduleku eta oinetarako bi heldulekukoa. Hasierako posizio hori argi eta garbi seinlatu beharko da.

Hasierako eta amaierako heldulekuek beste heldulekuen kolore desberdina izan behar dute, ahal izanez gero.

Boulderreko problema batean egin beharreko saioa hasitzat emango da, lehiakidea hasierako posizioan dagoela, gorputza lurretik altxatzen duenean.

Lehiakideak Bideko epaileari edozein unetan galde diezaiokete zenbat denbora gelditzen zaion. Gainera, Bideko Epaileak lehiakideari jakinarazi egingo dio bideari esleitu zaion denboratik 60 segundo besterik gelditzen ez direnean.

Lehiakideak bidearen edozein puntutan egin dezake atzera, lurrera jaisten ez den bitartean bere saioari eutsiz.

KIROL ESKALADAKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA

Saio bat gainditu dela esango da azken heldulekuari (argi eta garbi seinalatuta egongo da) bi eskuekin heltzen dionean eta Bideko Epaileak ontzat ematen duenean, "BALE" esanez.

Saio bat bertan behera geldituko da kasu hauetan:

- Erortzen denean.
- Lurra ukitzen duenean.
- Bidearen mugak gainditzen direnean.
- Problema amaitu aurretik denbora bukatzen zaionean.

Huts egindako saio batean sari puntuak ematen dituen helduleku bati heldu badio, puntu bat lortuko da, 5.10 puntuak zehazten denari jarraituz.

Ibilbidea egiteko saioa amaitzen denean, bai huts egiten denean eta baita gainditzen denean ere, lehiakideak berehala lurrera itzuli behar du. Beste saio bati ekin nahi badio, hasierako puntura itzuli behar du, egitura ukitu gabe.

Problema bati esleitu zaion denbora epearen barnean, lehiakidea batek problema bat egiteko ahalegina nahi beste aldiz egin dezake.

Guneari esleitutako denbora tartearen barnean lehiakide batek bidea ongi osatzen badu, bide horri dagokion eskalada gunean gelditu behar du denbora amaitu arte eta hurrengo gunera joateko agintzen zaion arte.

Bide bakoitzeko saioaren ondoren, eskalatzailerak atseden hartzeko denbora tarte bat izango du, eskalatzeko emandako denbora tarte adinakoa, baldin eta epaileei eta antolatzaileei egoki iruditzen bazaie.

Helduleku bati heldu zaiola onartuko da Bideko Epaileak horrela irizten dionean.

Lurretik uki ditzaketan heldulekuak garbitzeko eskuilak erabil ditzakete lehiakideek. Debekatutako daude metalezko eskuilak.

Pinu erretxina soilik antolatzaileen baimenarekin erabil daiteke.

5.10.- PUNTUAZIO SISTEMA

Itzuli bakoitzaren ondorengo sailkapena honako irizpide hau kontuan hartuta egingo da:

- Gainditutako problema kopurua.
- Gainditutako problemak osatzeko egindako saio kopuru osoa.
- Sari puntuen kopuru osoa.
- Sari puntuak lortzeko egindako saioen kopuru osoa.
- Sari puntuak: bide guztietan sari puntuak lortzeko heldulekuak egongo dira (irteerako eta helmugako nahiz gainerako heldulekuen kolore desberdina izango dute), eta Ekipatzaile Ordezkararen irizpidearen arabera kokatuko dira. Lehiakideak helduleku horiei heltzen badie sari puntuak lortuko ditu. TOPa lortu duen saioan, gainditutako problema guztien zenbaketan sari puntuen heldulekua ere hartuko da kontuan, lehiakideak ukitu ez badu ere.

5.11.- GUNEEN MANTENTZE LANA

Epaileak eta Ekipatzaile Ordezkariek lehiaketaren itzuli bakoitzean eskalatzeko guneak modu egokian mantentzeaz arduratuko dira.

Lehiaketan heldulekuren bat hautsiko edo mugituko balitz: Bideko Epailearen jarraibideak kontuan hartuz, Ekipatzaile Ordezkariek edozein konponketa lan egingo edo berrikusiko du, eta Epaimahaiko Lehendakariari egindakoaren berri emango dio. Konponketaren emaitzak hurrengo lehiakideei abantaila edo desabantailaren bat ekar badieziaiekete, Epaimahaiko Lehendakariak itzuli horretan gune hori egiten jarraitzea edo bertan behera uztea erabaki dezake; bigarrena aukeratzen badu, ez da kontuan hartuko gainerako lehiakideek bertan lortutako puntuazioa. Beste gune bat erabiltzeko aukerarik ez badago eta itzulia 4 gunetan egiten ari bazen, Epaimahaiko Lehendakariak, salbuespen moduan, itzuli hori soilik 3 gune eginez baliodundu dezake.

Heldulekuen garbiketa: guneetako heldulekuak garbitzeko maiztasuna eta metodoa Bideko Epaileak erabakiko du (Ekipatzaile Ordezkaritari kontsultatu ondoren) lehiaketako itzuli bakoitza hasi aurretik.

5.12.- GORABEHERA TEKNIKOAK

Bideko Epaileak gorabehera tekniko bat gertatu dela adierazi ahal izango du ondoko kasu hauetan:

- Helduleku bat hautsi edo askatu bada.
- Lehiakide bati desabantaila edo abantaila bat ekar diezaiokeen beste edozein gertaera sortu bada, lehiakidearen beraren ekintzaren emaitza ez denean.

Bideko Epaileak gorabehera teknikoa gertatu dela adierazi beharko du lehiakideak, kanpoko laguntzen ondorioz, abantaila izango duen edozein gertaera jazotzen bada.

Bideko Epaileak, eskalatzailerak hala eskatuta, gorabehera teknikoa adierazi ahal izango du ondoko kasuetan:

- a) Gorabehera teknikoaren ondorioz lehiakideak legezko kokapena ez duenean, Bideko Epaileari gorabehera teknikoa adierazteko eskatzen dionean eta horrek arrazoia ematen dionean. Heldulekuren bat mugitu bada edo horren inguruan zalantzaren bat badago,

KIROL ESKALADAKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA

Bideko Epaileak igotzeko eskatuko dio ekipatzaileari, heldulekua mugitu egin dela egiaztatzeko.

b) Gorabehera teknikoak gertatu arren lehiakideak legezko kokapena duenean, baina Bideko Epaileari gorabehera teknikoak adierazteko eskatzen dionean. Lehiakideak zer gertatu den zehaztu behar du, eta Bideko Epaileak bidea egiteko saioa bertan behera uzteko onespena eman arte itxaron beharko du.

Gorabehera teknikoak gertatzen bada eta eskalatzaileak, legezko jarrera duelako, eskalatzen jarraitzea erabakitzen badu eta, ondoren, erorketaren bat gertatzen bada, ezingo du saio horretan gorabehera teknikoak eskatu. Hala ere, eskatu ahal izango du gune berean beste saio bat egin behar badu eta gune hori kaltetuta gelditu bada.

Lehiakidea egiten ari den bidean gorabehera teknikoak gertatu bada eta Bideko Epaileari hori adierazteko eskatu badiu, bide hori utziko du eta zehaztutako eskalatzeko eremuaren barnean itxaron beharko du denbora amaitu arte eta hurrengo gunera joateko agindu arte. Bidearen konponketa Bideko Epaileak Ekipatzaile Ordezariari horren berri eman bezain laster hasiko da.

Txandaketa denboraren aurretik bidea konponduta ez badago, eragindako lehiakideak (gune hori egin behar dutenak) bakartze gunera eramango dira, eta ez dute inorekin harremanik izango konponketa lanak amaitu arte. Orduan, lehiakideak gorabehera teknikoak gertatu den bidearen ondorengo bidera itzuliko dira, eta itzulia amaitutakoan konpondutako bidera itzuliko dira, hurrengo puntuan zehaztutako moduan.

Konponketen ondorioz eragindako lehiakideek bere itzuliarekin jarraituko dute hurrengo gunetan, itzulia amaitu arte. Orduan, lehiakide horiek, gorabehera teknikoaren ondorioz, lehenago egin ez duten gunera itzuliko dira eta bidea egiten saiatuko dira. Bidea egiten saiatzeko denbora, denbora osoari gorabehera teknikoak epaileei adierazi arte erabilitako denbora kenduta gelditzen dena izango da.

Konponketa bat egin behar denean edo lehiakide bat berriro saiatzeko zain dagoenean, igarotze gunean zain dagoen lehiakideak bakartze gunera joan beharko du beharrezkoa den guztietan.

Gune bat konpontzeko denbora itzuli bat egiteko behar den denbora baino luzeagoa bada, Epaimahaiko Lehendakariak bide hori deusezta dezake itzuli horretan, edo lehiakideei jarraitzeko eska diezaieke eta gune horretara iristen diren bakoitzean gorabehera teknikoak adieraz dezake.

Gorabehera teknikoak handia bada eta itzuli osoa geldiarazi behar bada, eskalatzen ari diren lehiakideak bakartze gunera eramango dira, eta ez dute inorekin harremanik izan behar gorabehera teknikoak konponduta egon arte.

5.13.- SAILKAPENA ETA ITZULI BAKOITZERAKO KUOTAK

Lehiaketako itzuli bakoitzaren ondoren, lehiakideak lortutako puntuen arabera eta berdinketa hausteko bonoak kontuan hartuta kokatuko dira sailkapenean, 5.10 atalean zehaztutakoari jarraituz.

Sailkapen batzuetan berdinketa gertatu bada, berdinketa hausteko sari puntuak erabiliko dira. Hala ere, berdinketak irauten badu eta azken itzulia bada, aurreko itzuliko sailkapena erabiliko da. Kasu horretan, lehenengo lekuko berdinketak bere horretan jarraituko balu, superfinal bat egingo litzateke, Epaimahaiko Lehendakariaren irizpidearen arabera, horrek antolatzaileekin eta EMFko Ordezariarekin kontsultatu ondoren. Superfinala egin ondoren ere berdinketa hautsiko ez balitz, bi lehiakideen arteko berdinketa gertatu dela adieraziko litzateke.

Azken sailkapena lehiakideek lortutako emaitzaren arabera ezarriko da. Berdinketa gertatu bada, sailkapen berean amaitu duten lehiakideek toki horri dagozkion puntuak jasoko dituzte, hau da, biek puntuazio berdina izango dute; ondoren sailkatutako lehiakideek aurretik sailkatutako lehiakideen kopuruaren arabera dagozkien lekuak beteko dituzte, aurrekoen artean berdinketa dagoen ala ez kontuan izan gabe.

Azken itzulirako ezarritako kuota lehiaketa hasi aurretik adieraziko dute antolatzaileek. Kuota hori ez da 6 baino txikiagoa eta 20 baino handiagoa izango.

Itzuli osoa gehieneko puntuazioarekin egiten duten lehiakide guztiak zuzenean pasako dira finalera. Gehieneko puntuazioa lortu duen lehiakide nahikoa ez badago finaleko kuota osatzeko, sailkapenera joko da kuota hori osatzeko; sartzeko aukera duten lehiakideen artean berdinketarik balego, ondoren zehazten den moduan jokatu da:

- Lehiakideen arteko berdinketak finaleko itzulian sartzeko tokietan eskalatzaile gehiegi egotea eragiten badu, lehiakide kopuru txikiena hautatuko da beti, legezko gutxiengoa gainditu gabe. Arau hau Epaimahaiko Lehendakariak aldatu egin dezake.

Superfinala: finaleko itzulia egin ondoren, eta aurreko itzuliaren emaitza kontuan hartuz, lehenengo tokian berdinketa gertatuko balitz, superfinala egingo da.

Superfinala finaleko itzuliaren zati osagarritzat hartuko da, eta lehenengo lekuan gertatutako berdinketa hausteko helburua izango du.

Superfinala problema bakar batean eta saio bakar batean egingo da. Aurrez zehaztutako denbora izango dute problema gainditzeko, eta lehiakideek 40 segundo igaro aurretik hasi beharko dute eskalatzen.

KIROL ESKALADAKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA

Sailkapenerako, Bistako Eskaladako araudiak (4.11 eta 4.12 atalak) hartuko dira kontuan. Hainbat lehiakidek gailurrera iristea lortzen badute, lehenengo lekuan berdinketari eutsiko zaio, baina lehiakide bakar bat ere ez bada gailurrera iristen eta berdinketak jarraitzen badu, eskalatzaileek beste saio bat egingo dute prozedura berberari jarraituz, eta horrela gehienez ere 6 saio egin arte. Saio horien ondoren berdinketak jarraitzen badu, lehiakideen artean berdinketa gertatu dela adieraziko da.

5.14.- LEHIKIDE BAT LEHIAKETATIK KANPORATZEA

Honako hauetakoren bat eginez gero, lehiakide bat lehiaketatik kanpo utziko da berehala:

- Lehiakideari bakartze gunean egotea egokitzen zaionean, bertatik irteten bada, ezinbestekak bultzaturik edo Epaimahaiko Lehendakariaren baimenarekin ez bada.
- Antolatzaileek ezarritako itxiera orduaren ondoren iristen bada bakartze gunera.
- Bereziki zehaztutako behaketa gunetik kanpo behatzen baditu bideak.
- Bakartze gunetik irteten bada, lehiatzeko txanda errespetatu gabe.
- Bidea hastean ekipo egokia ez badu.
- 4.11 atalean zehaztutakoa errespetatzen ez badu bidea hastean.

5.15.- DESKALIFIKAZIOA ETA ZIGOR DIZIPLINARIOA

Honako hauetakoren bat eginez gero, lehiakidea lehiaketatik kanpo utziko da berehala, eta zigor diziplinarioa ezartzea ekar dezake:

- Araudian barne hartu gabeko baliabideak erabiliz lehiakideak egin behar duen bide bati buruzko informazioa biltzea.
- Beste lehiakide bati informazioa eskaintzea, araudian onartutakotik kanpo.
- Prestatzen ari den edo bide bat saiatzan ari den beste lehiakide bati arreta galaraztea edo oztopatzea.
- Bere funtzioak betetzen ari denean, ofizial bati arreta galaraztea edo oztopatzea.
- Epailen eta/edo antolamenduko ofizialen aginduak ez betetzea.
- Edozein zeremonia ofizialetan parte ez hartzea.
- Kamiseta ofiziala edo lehiakide zenbakia eramateari uko egitea.
- Jarrera eta hitz iraingarriak edo erasokorrak erabiltzea lehiaketa guneko, bakartze guneko edo igarotze guneko edonoren aurka.
- Kirol legerik gabeko jarrera, publikoa dagoen gunean.

Diziplina araudiarekiko ezar daitezkeen zigorrak 9. atalean deskribatutakoaren arabera ezarriko dira. Halaber, erreklamazio sistema 10. atalean deskribatutakoari jarraituz egingo da.

6.- DOPINA

Debekatuta dago erabat artifizialki kirolarien gaitasun fisikoak areagotzera zuzenduta dauden substantziak, talde farmakologikoak edo metodoak erabiltzea.

Dopinaren Aurkako Batzordeak –Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kirol Zuzendaritzaren menpekoa– debekatutako gaiez eta talde farmakologikoez edota arauzkoak ez diren metodoez osatutako zerrenda bat kaleratuko du. Halaber, batzorde hori arduratuko da dopin kontrolen antolamendua eta plangintza zehazteaz, eta berak erabakiko du zein lehiaketatan egin eta bakoitzean zenbat lagin hartu ere.

Lagin baten emaitza positiboa bada, batzordeak bere ebazpenaren berri emango dio EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeari, honek behin betiko erabakia har dezan eta dagozkion zehapenak ezar ditzan.

Dena den, EMF behartuta dago gai horretan administrazioari laguntzera, aurreikusteko nahiz kontrolatzeko eta zigortzeko, horrekin lotuta zehaztuko den araudiarekin bat etorritik.

7.-DIZIPLINA ARAUBIDEA ETA KIROL JOKABIDEA

7.1.- SARRERA

Epaimahaiko Lehendakariak aginpide nagusia du lehiaketari dagozkion jarduera eta erabaki guztietarako, lehiaketarako zehaztutako gunearen barnean beti ere; adibidez, izena emateko gunean, bakartze eta igarotze guneetan, eskalada murruren aurreko lehiaketa gunean eta eskalada murruan.

7.2.- LEHIKIDEAK

Epaimahaiko Lehendakariak eta Bideko Epailak behean zehaztutako ekintzak egiteko baimena izango dute lehiaketako araudiaren kontrako arau hausteen eta lehiakideren batek lehiaketa gunearen barnean izan ditzakeen jokabide diziplinagabeen aurka:

- Ez formala, ahozko jakinarazpena.
- Jakinarazpen ofiziala, "Txartel Horiarekin" batera.
- Lehiaketatik kanpo uztea, "Txartel Gorriarekin" batera.

Epaimahaiko Lehendakariak soilik izango du erabaki hori hartzeko aginpidea.

"Txartel Horia" ateratzeko arrazoiak honako hauek izan daitezke:

KIROL ESKALADAKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA

- Epaimahaiko Lehendakariak edo Bideko Epailleak Bakartze gunera joateko eskatzen duenean atzeratzea. Atzerapena handiagoa bada, lehiaketatik kanpo gera daiteke.
- Bideko Epailleak emandako aginduak ez betetzea eskalatzen hastean.
- Bideko Epaillearen edo Epaimahaiko Lehendakariaren aginduak ez betetzea.
- Hizkuntza iraingarria edo erasokorra erabiltzea edo indarkeriazko jokabidea erakustea.
- Kirol legerik gabeko jarrera.

Erabaki horien kontrako apelazioek 10. atalean zehaztutako izapideari jarraitu behar diote.

Denboraldi batean bigarren txartel hori bat erakusten baldin bazaio lehiakide bati, ezingo du parte hartu EMFren hurrengo proba ofizialean.

Lehiaketatik kanporatzea, baina bestelako zigorrik ezarri gabe: ondoko arau haustek gertatzen badira "Txartel Gorria" erakutsiko zaio lehiakideari, eta lehiaketatik kanpo utziko da zuzenean, bestelako zigorrik gabe:

- Bakartze gunera itxiera orduaren ondoren iristea.
- Bereziki zehaztutako behaketa gunetik kanpo behatzea bideak.
- Bakartze gunetik irtetea, lehiatzeko txanda errespetatu gabe.
- Bidea egiten hastean ekipo egokia ez eramatea.
- Onartu gabeko materiala erabiltzea.
- Antolatzaileek emandako jantzi ofizialak eta/edo zenbakia ez eramatea edo aldatzea.
- Bakartze gunean edo mugatutako beste guneren batean baimendu gabeko komunikazio sistemak erabiltzea.
- Modalitateen arabera, 4.11. eta 5.9. ataletan zehaztutakoa ez betetzea bidea hasteko unean.

Erabaki horien kontrako apelazioek 10. atalean zehaztutako izapideari jarraitu behar diote.

Lehiaketatik kanporatzea eta EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeari berehala horren berri ematea: hurrengo arau haustek eginez gero, lehiakideak "Txartel Gorria" jasoko du eta lehiaketatik kanpo utziko da zuzenean; horrez gain, EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeari horren berri emango zaio, eta ezingo du parte hartu EMFren hurrengo proba ofizialean:

- Lehiaketa gunean eta igarotze eta bakartze guneetan egindako arau haustek.
- Arauak onartzen ez dituen baliabideak erabiliz bideari buruzko informazioa lortzea.
- Arauak baimendutako muga hautsiz, beste lehiakide batzuei informazioa ematea.
- Prestatzen ari den edo bide bat saiatzten ari den beste lehiakide bati arreta galaraztea edo oztopatzea.
- Epailen eta/edo antolamenduko ofizialen aginduak ez betetzea.
- Edozein zeremonia ofizialetan parte ez hartzea.
- Lehiakideak arauetan zehaztutako jantziak ez eramatea.
- Kirol legerik gabeko jarrera edo lehiaketan arazo larriak sortzea.
- Kirol legerik gabeko jarrera edo lehiaketan arazo larriak sortzea, nahiz hitz iraingarriak, erasokorrak eta indarkeriazkoak erabiltzea edo jarrera desegokia erakustea antolatzaileekin, Epailleekin, managerrekin, beste lehiakideekin edo ikusleekin.
- Lehiaketa gunetik kanpo baina ikusleen gunean egindako arau haustek.

Ahal bezain laster, "Txartel Horia" edo "Gorria" erakutsi ondoren, Epaimahaiko Lehendakariak (bere irizpideari jarraituz edo dagokion Bideko Epaileri galdetu ondoren) ondokoak egingo ditu:

- Idatzi bat bidaliko dio lehiakideari (edo lehiakidearen managerrari), egindako arau haustea eta, araudiari jarraituz, horrek dakarren diziplina ekintza zehaztuz.
- Idatzi horren kopia, egindako arau haustearen, frogen eta ezar daitezkeen zigorren gomendioen txosten zehatzarekin batera EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeari igorriko dio Epaimahaiko Lehendakariak.

7.3.- EKIPO OFIZIALA

Ekipo ofiziala (entrenatzaileak, masajistak, sendagileak, managerra...) ere zigortuko da eta lehiakideen tratu berbera jasoko dute.

8.- ERREKLAMAZIOAK ETA APELAZIO SISTEMAK

8.1.- OROTARIKOAK

Ahozko erreklamazio nahiz erreklamazio idatzi guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialeko batean egin beharko dira.

Erreklamazio bat onartu ahal izateko dagokion tasa ofizialarekin batera aurkeztuko da.

8.2.- APELAZIORAKO EPAIMAHAIA

Ahozko erreklamazioa edo erreklamazio idatzia balego 10.4.- ataleko 2 b) azpiatalaren kasuan, Epaimahaiko Lehendakariak Apelaziorako Epaimahai bat osatuko du honako hauekin: Epaimahaiko Lehendakaria, EMFko Ordezkarria eta gertatutakoan parte hartu ez duen Bideko Epaille bat. Erreklamazioa ahal bezain laster ebatziko da, egoerak horretarako aukera ematen badu. Idatziz

KIROL ESKALADAKO TXAPELKETETARAKO ARAUDIA

egindako erreklamazioaren kasuan, Apelaziorako Epaimahaiaren erabakia idatziz egin beharko da, eta Epaimahaiko Lehendakariak eskura entregatu beharko dio erreklamazio ofiziala egin duen pertsonari; 10.4.- ataleko 2 b) azpiataleko kasuan egin bada erreklamazioa, managerrak eta lehiakideak jasoko dute informazioa.

Araudi honetako 10.4.- puntuari dagokionez Apelaziorako Epaimahaiak hartutako erabakia behin betikoa izango da, eta ezin izango dira erreklamazio gehiago jarri gai horrekin lotuta.

8.3.- ERABAKI OFIZIAL BATEN KONTRAKO ERREKLAMAZIOAK LEHIAKETAN

Bideko Epaileak, erabaki bat hartu aurretik, lehiakideak egindako bidearen saioaren bideoa aztertu nahi bada, Bideko Epaileak bidea osatzeko aukera emango dio lehiakideari, lehiaketako arauekin bat etorriz. Saioa amaitu ondoren, Bideko Epaileak berehala adieraziko dio lehiakideari itzuli horretan izango duen sailkapena itzulia amaitzean lehiaketaren bideoaren azterketaren arabera izango dela. Lehiaketaren bideo ofiziala baino ez da erabiliko, eta Epaimahaiko Lehendakariak eta Bideko Epaileak erreklamazioak ebasteke erabiliko dute.

Lehiaketaren bideoa ezingo du edozeinek ikusi, eta soilik Epaimahaiko Lehendakariak, Bideko Epaileak, Ekipatzaile Ordezkariek eta EMFko Ordezkariek ikusi ahal izango dute.

8.4.- ERABAKI OFIZIAL BATEN KONTRAKO ERREKLAMAZIOAK LEHIAKETAKO ITZULI BATEN ONDOREN

Lehiaketako itzuli bat amaitu ondoren eta emaitza ofizialak argitaratu ondoren sailkapen ofizialaren kontrako erreklamazio bat egin nahi bada, emaitzak argitaratu eta 30 minutuko epean egin behar da. Erreklamazioa lehiaketako itzuli bakoitzaren amaieran emaitzak argitaratzen direnean egin behar da. Erreklamazioa idatziz egingo da, eta Epaimahaiko Lehendakariari zuzenduko dio managerrak edo lehiakideak.

Abiadura lehiaketak:

- a) Lehiakideek egindako denboran oinarritutako itzulien kasuan (adibidez, kalifikazio itzulia), erreklamazioa 10.4.- puntuko 1. atalean zehaztutako moduan egin beharko da.
- b) Azken itzuliaren kasuan (KO), erreklamazioa emaitza iragarri eta berehala egin beharko da. Bideko Epaileak horren berri emango dio berehala Epaimahaiko Lehendakariari. Hurrengo aurrez aurrekoa ez da hasiko Epaimahaiko Lehendakariak hartutako erabakia adierazi arte.

8.5.- EMF-REN KIROL DIZIPLINA ETA LEHIAKETA BATZORDEARI ZUZENDUTAKO ERREKLAMAZIOAK

Epaimahaiko Lehendakariak araudiaren haustea EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeak aztertu behar duela pentsatzen bada, erreklamazioa Batzorde horri igorriko zaio, Epaimahaiko Lehendakariaren txostenarekin eta Epaimahaiko Lehendakariaren eta managerraren edo lehiakidearen artean idatziz egindako komunikazioen kopiekin nahiz bestelako elementu garrantzitsuekin batera.

Epaimahaiko Lehendakariak hartutako erabakien kontrako erreklamazioak idatziz aurkeztuko dira, eta EMFri zuzenduko zaizkio 7 eguneko epean, emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. EMFk, erreklamazioa aurkezten den egunetik hasita, 30 eguneko epea izango du gehienez ebazpena emateko. EMFk emandako erabakien kontrako errekursoak EMFren Kirol Diziplina eta Lehiaketa Batzordeari zuzenduko zaizkio, EMFren erabakiaren berri jaso eta 30 eguneko epean.

8.6.- ERREKLAMAZIO TASAK

Erreklamazio tasak urtero EMFk argitaratzen dituen tasetan oinarrituko dira.

Erreklamazio bat lehiakidearen alde erabakitzen bada, tasa itzuliko zaio. Hala ere, lehiakidearen kontrakoa bada erabakia, apelazio tasa ez da itzuliko.

9.- XEDAPEN GEHIGARRIAK

1. EMFren txapelketa ofizialetan parte hartuko duten kirolariek, teknikariek eta epaileek EMFren Kirol Diziplinari buruzko Araudia bete beharko dute.

2. EMFk, hala dagokionean, hemen zehaztutako modalitateei dagokienez, horien modalitate irekiak arautzeko araudiak garatu ahal izango ditu.

ARAUDI HONEN LANKETA:

FEDMEren eta IFSCren Kirol Eskaladako Araudi Ofizialean oinarritua.

EMFko Kirol Eskaladako Arbitroen Estamentuaren laguntzarekin.